

Martin Ugaldere

J. Velez de Mendizabal

Euskaldunon Egunkaria, 1991-06-27: 2.

Egun hauetan zutaz oroitu dela esan dit Xabier Mendiagak, etxe ondoko kafetegian elkarrekin gosaltzen ari ginela. 1977an ezagutu zintuela, "gure lurraren deia" haren euskal proiektua hezurmamitzeko beste zenbait lankiderekin batera Azitainera biltzen zinetenean. Asmo onak ez omen ziren nahiko izan eta egunkari hartan zegokizun lemari ur sakonetan aritzea eragotzi zitzaionez gero, itsasuntzia utzi eta kapitain pilotu erantzuleen antzera, itsas desberdinetako mareak ezagutzea abiatu zirela.

Croissanta kafesnean bustitzen ari zen bitartean, abertzale nahi zenuten jaurlaritza-proiektu berri batean lankide izan zinetela kontatu dit, eta horretatik ere etsi-etsi eginda alden du behar izan zenutela. Bihotzean sustraiturik, usteltzen hasia zitzaizun zuhaitza erauzi eta kimu itxaropengarri zerakusatzan beste gazteago bat landaratu zenuela, aldaketaren oinaze lazagarriek orain ere sentimenduzko dorre zuzena dardarazten dizutelarik.

Eta Xabierrek zioenez, gaur ez dirudi gogo-egoera hobean egoteko motibo duzunik. Abertzaletasuna, formula matematiko hotz bezain antzukur baten orde sakrifikatzeko gertu azaldu diren une hauetan; euskal kontzientzia, mendetan zehar ukatu egin zaigun tontorreraino jasotzeko aukerari bizkar eman dioten eta goibel honetan; boterea boterearengatik, itsukeriatik begiratzen diguten ordu negargarri hauetan; duintasunaren konzeptu gainean jarrera lotsagarriak eskaintzen dizkiguten Ekainaren 15. honetan..., Martin, har ezazu Xabieren eta nire besarkadarik anaikorrena.